

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Ezker Iraultzailearen aldizkaria

www.euskalherriasozialista.net

EAJren aurrekontu neoliberalak
erreformatzea ez da bidea

73 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

Soilik borrokarekin

amaituko dugu murrizketekin
eta austeritatearekin!



2. Editoriala • 4 Brasil • 6 Nikaragua • 8 Emakume langileak
borrokan EHn • 10 Emakume bankari feminista... • 12 Catalunya
14 Naval ez itxi! • 16 Utzi Altsasu bakean



EAJren aurrekontu neoliberalak erreformatzea ez da bidea soilik **borrokaren bidez** amaituko dugu murrizketekin eta austeritatearekin!

Aurtengo lehen sei hilabeteen euskal herritarren %71ak protesta sozial batean parte hartu du. Pentsionistak, emakumeak, Navaleko langileak, borrokan dauden sektore feminizatueta emakume langileak... urte guztian zehar kalean egindako mobilizazioak izan dira; eta kontuan behar dira, baita ere, noski, EHko eta Catalunyako presoen, Altsasuko gazteen eta autodeterminazio eskubidearen aldeko manifestazio jendetsuak.

Bizkaiako pentsionistek nabarmendu duten bezala, “orain arte lorturiko guztia mobilizazioari eta presioari esker izan da”. Borrokek lortu zuten Rajoyren gobernu eraistea, non EAJk kaleko presioaren baitan bere bozka aldatu zuen. Hala

ere, kaleak gehiago mugitzen diren heinean, ezkerreko buruzagiek konfiantza gutxiago agertzen duten masen indarrean eta gizartea eraldatzean, eta gehiago eusten diote bulego eta instituzioetan negoziatzeari, bide guztietatik sistema hau salbatu nahi dutenekin.

PSOE-Podemosen aurrekontuen ituna

2019ko aurrekontuen akordioa sinatzean, Podemoseko zuzendaritzak pauso erabakigarria eman du PSOErekin duen koalizio jarraian, 78ko erregimen politikoaren taulara moldatuz eta alde batera utziz ekintzetan 2014an jaio zenean aldarrikatu zuen hausturazko pro-

grama. Pablo Iglesiasek karterarik gabeko ministroaren papera hartu du bere gain, PSOErekin itunduriko aurrekontuak aurrera ateratzeko, bake soziala bermatzearen eta borroka guztiak maila instituzionalera bideratzearen truke. PSOEren politikak errazteko Iglesiasek eta Urkulluk izan zuten bilerak argi erakusten du hori.

Akordioaren neurri esanguratsuena gutxienezko soldata hileko 900 eurora igotzea izan da. Aurre-rapausoa da abiapuntua nola zegoen kontuan hartuz gero, eta milioi eta erdi langile izango dira igotze jasoko dutenak. Baina kontuan izan behar dira alokairuen, elektrizitatearen eta bestelako oinarriko produktuen prezioen igoerek ere neurri honen eragina murrizten dutela. Pentsioen, etxebizitzaren, etab. inguruan iragarritako beste neurriek ez diete kalean planteatu ditugun aldarrikapenei erantzuten eta ez dute konpontzen, inolaz ere, milaka familiek egun jasaten duten egoera lasgarria, enpresarioen irabazien igoera ikaragarriaren aurrean.

Esanguratsua da oso Podemosek eta PSOEek uko egin izana Zapatero eta Rajoyren gobernuak onarturiko kontrarreformak indargabetzeari. Lan erreformak, pentsioenak, osasungintzaren eta hezkuntzaren pribatizazioak, LOMCE edo Mozal Legea mantendu egiten dira eta soilik “horiek aldatzean aurrera egitea” planteatu da.



EAJren aurrekontu neoliberalak

EAJk azkenera arte babestu zuen Mariano Rajoyren gobernu; eta EAEn ere PPrengan babestu da eta hori egiten jarraituko du patronalari gehien interesatzen zaizkion politike-tan, foru aldundietan eta udaletan. Nabarmenezkoa da hezkuntzaren aldeko akordioa aurrera ateratzeko LOMCEren PPrengan aurkitu duela babesa, beste behin langile, guraso eta ikasle sindikatu eta erakunde guztiak aurka dituenen.

Halere, udal, foru eta Europako hauteskundeak gertu egonik, EAJ EHBilduri eta Elkarrekin Podemosi keinuak egiten dabil, bake soziala ziurtatzeko helburuarekin. Euskal eskuinaren alderdiak bere aurrekontuak aurrera ateratzeko ezkerrearen babesa bilatu behar izatea, ez da bere indarraren erakusgarri, ahultasunarena baizik.

PSOerekin gobernatzen duen EAJk gutxienez talde parlamentario baten abstentzioa behar du bere aurrekontuak aurrera ateratzeko. PPK EAJrekin distantziak markatu dituenen, Elkarrekin Podemoseko eta EHBilduko zuzendaritzak EAJrekin biltzeko prest agertu dira politika sozialetan erreformaren bat aterako ote dioten, aurrekontu neoliberalak onartzearen truke. Elkarrekin Podemosek bere babesari jarri dion prezioa 1.500 milioi dira. EHBilduk berriz 420 milioi eskatu ditu bere bi diputaturen abstentzioarekin aurrera egin dezaten: 350 milioi pentsio baxuenak osatzeko eta 70 milioi enplegua eta genero berdintasuna sustatuko duten planerarako. Nahiz eta azken horrekin bestelako asmoa egon, patronalaren subentzioetara bideratuko lirateke.

EHBilduko zuzendaritzak EAJri estatu politikak eta herri akordioak

eskatzen dizkion bitartean, honek beti baldintza berdinarekin erantzuten dio: ezkerreko aldarrikapenak albo batera utz ditzala, “errealismoarekin joka dezala” eta jokoaren arauak eta kapitalaren Europaren aginduak onar ditzala. Egibarrek botatzen dionean EHBilduri izu politikoa duela EAJrekin akordioetara iristeko, jakin badaki ezker abertzaleko oinarri langilea ez dagoela prest murrizketen aurrean amore emateko. Beraien estrategia zuzendaritzarik gabe uztea da.

Ezker Iraultzaitetik gure egiten dugu pentsionisten, emakumeen eta ikasleen mobilizazioetako leloa: “zeinahi dagoela ere gobernuan, eskubideak defendatu egiten dira”. Sistemaren oinarriak aldatzeko borrokatzen dutenen alboan, mobilizazioa zabalduz eta alternatiba iraultzaile bat altxatuz amaituko dugu murrizketa eta austeritatearekin.

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 708 281
Twitter: @EHSozialista - @Ezklraultzailea • Facebook: Ezker Iraultzailea - Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.



Brasil

Bolsonaroren garaipena mehatxu larria da langile klasearentzat eta gazteentzat

LIBERDADE, SOCIALISMO
E REVOLUÇÃO
CWI/CIT · Brasil

Jair Bolsonaro ultraeskuindarraren garaipena mugarri izango da Brasilgo eta Latinoamerikako klase arteko borrokaren garapenean. Masen borrokan oinarritzen den programa iraultzaile batekin bakarrik irabaz diezaioke Brasilgo langile klaseak erreakzioari.

Bolsonarok 57.797.423 boto eskuratu ditu (%55,13); aldiz, Fernan-

do Haddad PT Langileen Alderdi-ko hautagaiak 47.040.574 (%44,87). Eskuin tradizionalak 2014an lortutako botoak bereganatu ditu Bolsonarok (51.014.155) eta PTko batzuke ere erakarri ditu: Lularen alderdiak 7.460.544 boto galdu ditu 2014ko hauteskundeekin alderatuz; abstentzioa %21era iritsi da eta hamar milioi pertsonak (%9,57) boto zuria edo nulua eman dute.

Ejertzitoko kapitain ohi hori ideia filofaxisten, matxisten, arrazisten eta homofoboaren defendatzaile sutsua

da, eta abentureroz eta karreristez gain, Brasil 1964-1985. urte bitartean gobernatu zuen diktadura militarra defendatzen duten faxistak eta polizia eta militar ohiak biltzen dituen alderdiko burua da. Lehendakariorde berria, Hamilton Mourao, Sao Pauloko Club Militarreko zuzendaria da. Club honetako kide asko diktadurako krimenetan parte hartu zuten ofizial gorenak dira, baina inoiz ez ziren karguetatik kendu.

Bolsonaroren atzean ezkutatu dira burgesia handia, oligarkia tra-

dizionala eta, batez ere, Amazonas-ko oihanaren deforestazioarekin eta nekazaritza eremuen espolioazioarekin dirutza ikaragarria egin duten lurjabe handiak; horiek sikarioen miliziak antolatu izan dituzte milaka nekarazi eta herri indigenak beren lurretatik botatzeko.

Lularen eta PTren porrota

Bolsonarok milioika pertsonen haserre eta etsipena aprobetxatuz eskuratu du garaipena. Batez ere, “legea eta ordenaren” diskurtsoa babestuz eskuinera gogor biratu duten erdi mailako geruza ertainak izan dira bozka eman diotenak. Era berean, langileen sektore etsituak eta lanik aurkitzeko itxaropenik ez duten 12 milioi langabetuk ere babestu dute. Azken finean, atzerakada ekonomikoaren sakontasunak areagotu egin ditu indarkeriaren eta narkotrafikoaren izurriteak eta poliziak eta ejertzitoak gazteen aurka egingako exekuzio sumarioak. 2017an 63.880 hilketa egon ziren, 175 eguneko, 7,2 orduko.

Egia da Lularen lehen gobernuak lehengaia gorakadari esker etekinak izan zituztela eta, laguntza programak garatuz, muturreko pobrezia murriztu zutela. Hala ere, PTren gobernuak 12 urteetan ez zen

neurri sozialistarik hartu, eskuinarekin itunak egin ziren eta NDFri kontzesioak egin zitzaizkion. Murritzeta politikak aplikatu ziren, monopolio handien eta finantza oligarkiaren mesedetan.

Hauteskunde hauen emaitzak ezin dira Brasilgo ekonomiak bizi duen krisitik eta PTk azken urteetan aplikatu duen politika neoliberaletik bereizi. 2015ean 55 milioi brasildarrek (helduen %37) ezin zuten kreditu txarteleko zorra ordaindu. Milioika pertsona pobretzen ari ziren bitartean, PTko agintariak azken hamarkadako ustelkeria kasurik handienetan sartuta zeuden.

Venezuelaren kolapsoa eta bere eragina

2002an Iraultza Bolibartarrak ekarritako aurrerapenak ezkererako aldaketa eragin zuten kontinentean. Lulak Chavez presionatu zuen bere diskurtsoa eta ekintzak baretzeko, eta merkatu ekonomia errespetatzen duen ezkerrearen ordezkari gisa aurkeztu zuen bere burua.

Iraultza bukaerara iritsi izan baltz, kapitalistak desjabetuz eta bosterea herritarren eta langileen esku jarritz —hala eskatzen zuen chavis-

moaren oinarriak—, saihestu ahal-ko litzakete gaur Venezuelak bizi duen hondamendia. Banka, monopolio handiak eta lurra nazionalizatuz eta langileen kontrolpean jarritz, posible izango litzateke ekonomia-aren planifikazio sozialistarekin gizartearen oinarritzko beharrak asetzeta. Benetako Venezuela sozialista batek Brasilgo herria erakarriko luke, baita klase ertaina ere. Hala ere, milaka eta milaka pertsona Venezuelatik ihes egiten erakusten duten irudiek Bolsonarori lagundu diete.

Ezker Iraultzailea eraiki eta masen mobilizazioarekin erantzun

Antidemokratikoki PTko Dilma Rousseff kargutik kendu ondoren, Temer eskuindarraren erasoek greba orokor bat jaso zuten erantzun moduan 2017ko apirilaren 28an. Hala ere, PTren lotutako agintari sindikalek uko egin zioten mobilizazioak areagotzeko eta kolokan zegoen gobernuaren errekupera zedin utzi zuten. Borroka porrot egin zuen.

Hauteskunde kanpainan Bolsonaroren aurkako mobilizazio garrantzitsuak egon dira. Milioika gazte eta langilek ulertu dute zer arrisku dakarren, eta borrokatzeko eta erresistitzeko prest daude. Baina ofentsiba erreazionarioari aurre egiteko, lehenik eta behin, ikasgaiak atera behar dira PTko zuzendaritzak egindako akatsetatik.

Ezkerraren eginbeharra da Fronte Bateratu bat eraikitzea, erresistentzia batzordeak sortzea eta ekintza antifaxistak antolatzea, fabriketan, auzoetan eta ikastetxeetan eta masen mobilizazioak prestatzea, Bolsonaroren aurkako greba orokorrerako deia eginez.

Brasilgo langile klasea da kontinenteko indartsuena, tradizio iraultzaileak ditu eta badu gaitasunik borrokarako erakundeak sortzeko. Lehenago edo beranduago, indar guztiz sartuko da eszenatokira.



Nikaragua

Zergatik altxatu dira masak?

MANU ODRIUZOLA

Azken hilabeteotan Nikaraguan masak altxatu dira, eta horrek nahasmena sortu du zenbait ezkerreko erakundeetan, matxinada Nazio Askapenerako Fronte Sandinistaren (FSLN) izenean gobernatzen duen Daniel Ortegaren erregimenaren aurkakoa izan delako. Ez da ahaztu behar 1979ko iraultza sandinistak eragin handia izan zuela Euskal Herriko gazte eta langileengan, eta ez ziren gutxi izan iraultza babes-teko asmoz Nikaraguara joan ziren

brigadistak. Horregatik, oso garrantzitsua da zintzo eta zorrotz aztertzea zergatik gertatu den matxinada hau, zeintzuk diren protagonistak, nola erantzun duen Ortegaren Gobernuak eta zein izan den FSLNko buruzagien bilakaera.

Protesten pizgarria

2014az geroztik, era askotako protesta eta mobilizazio handiak izan dira Nikaraguan. Nekazariak behin eta berriz mobilizatu dira ozeano arteko kanalarengatik, eragin handi-

ko hondamendi ekologikoa ekarriko baitu. Proiektua txinatarrek finantzatu dute, eta Daniel Ortegaren seme Laureanok gidatzen duen, Pro-Nicaragua enpresako buru delako. Pentsioen kontrarreformaren aurkako mobilizazioak ere izan dira, baita abortua jazartzen eta zigortzen duen gobernuaren erabakien aurka ere. Hierarkia katolikoaren eskakizunei men eginez, emakume langileen oinarritzko eskubide bat urratzen du neurriak, eta ezin da ahaztu Nikaraguan etengabe hazi direla abusuak eta feminizidioak.

Joan den apirilaren 19an, Gizarte Segurantzaren kotizazioen erreformaren aurkako protesta hasi zen, unibertsitaterako ikasleak eta pentsiodunak buru zirela. Ortegaren gobernuak neurri hori onartu zuen Nazioarteko Diru Funtsearen ildoari jarraituz. Erreformak logika neoliberal jarraitzen du, langileei zerga presioa areagotuz eta prestazio sozialak murriztuz.

Protestak hasi zirenetik, 450 hildako izan dira, milaka zauritu eta ehunka atxilotu eta desagertu. Hasiatik gobernuak erabilitako errepresio basatia dela medio, urteetan metatutako ezinegonaren leherketa gertatu zen. Ikasleekiko elkartasun mugimendua berehala hedatu zen herrialde osoan, eta borroka indartu zen. Gauzak horrela, mahai gainean jarri dira Estatu burgesaren, armadaren eta poliziaen paperari buruzko auziak.

Gazte, nekazari eta langileen matxinada ez du inperialismoak sortu eta gidatu. Ez da kasualitatea 1979ko iraultzaren borroka tra-



dizioak bizirik gorde dituzten hiriak, herriak eta auzoak erresistentziaren buru jarri izana oraingoan ere. Antolaketa maila oso urrun iritsi da, toki horietako batzuk herritarren menpe geratzeraino.

Ortegaren gobernuaren politikak eta izaera

Nazio Askapenerako Fronte Sandinistak nekazarien eta herritarren iraultza handia burutu zuen eta 1979an Somozaen diktadura gortatua garaitu. Nahiz eta FSLNeko zuzendaritzak bandera hori eta, batzuetan, diskurtso antiinperialista erabili, egia esan NDFak eta enpresariak hauspotutako kontrarreforma kapitalista gogorrek inposatu ditu gobernutik, errepresio basatia erabiliz. Lotsarik gabe aberastu dira Ortega, haren emazte Rosario Murillo eta familia osoa, FSLNeko betiko burokraziaren geruza batekin batera. Gaur egun, Nikaraguako oligarkiaren parte garrantzitsu bihurtu da Ortegaren familia.

Aldiz, Nikaragua munduko herrialde txiroenetako bat da, haren ekonomia nabarmen hazi arren. Herritarren erdia pobrezian bizi da, eta nekazarien artean %68koa da pobrezia; biztanleriaren %30ak desnutrizio kronikoa pairatzen du, indigenen artean %50ak.

Erregimenak eta burgesiaren aldeko oposizioak bat egin dute Demokrazia eta Justiziaren aldeko Aliantza Zibikoan. Aliantza Zibiko hori COSEP herrialdeko patronal garrantzitsuenak eta Eliza katolikoaren hierarkiak zuzentzen du. Sortu zenez geroztik, borrokaren garapena gelditzen saiatu da, krisiari irtenbide negoziatua aurkitzeko eta egonkortasun kapitalista bermatzeko.

Denbora honetan guztian, inperialismo estatu batuarrekin koordinatuta egon dira Amerikako Estatu Erakundean (OEA), eta baita Europako hainbat estaturekin ere. Aliantza Zibikoa eta inperialismoaren helburua berbera da: irekitako krisi iraultzailea nola edo hala gelditzea, izan Ortegarekin edo be-

ra sakrifikatuz, ez badike balio haien interesak bermatzeko.

Masek kapitalismoarekin hausteko beharra dute

Ortegaren elkarriketarako deia ondoan, Gobernuak errepresio basatiari ekin zion uztailan. Armada, polizia eta paramilitarrak (arma automatikoak zituzten mertzenarioak) bidali zituzten borrokaren antolakuntzan urrunen iritsi ziren guneak gupidarik gabe erasotzeko.

Beharrezkoa da Nikaraguako gazteen eta zapalduen borrokarekin jarraitzea, krisiari irtenbide iraultzaile bat emateko: errepresioaren arduradunak epaitzetik eta zigortzetik hasi behar da eta kontrarreforma eta neurri kapitalisten eta neoliberalen indargabetzea lortzearekin jarraitu. Nikaraguako gertae- rek erakusten dute bigarren iraultza bat behar dugula, sandinismoaren borroka tradizioz onenak berreskuratzeko, sistema kapitalistarekiko haustura burutu ahal izateko.



Euskal Herriko emakume langileak borrokaren lehen lerroan

LAURA LUENGO
Emakume Aske eta Borrokalariak

Hilabete hauetan emakume langileak buruan egon diren lan gatazka ugari bizi izan ditugu. Kapitalismoak eta patriarkatuak gehien zapaltzen gaituenak gara, eta horregatik gaude mota guztietako esplotazio eta zapalkuntzarekin amaitzeko borrokaren abangoardian. Euskal Herrian ere emakumeok mobilizazio sozialaren buruan jarri gara, baita prekaritatearen, aldi baterako lanpostuen eta miseriako soldaten aurkako borroketan ere. Bizkaiko erresidentzietako langileak eredu izan ziren gu guztiontzat: patronalari, Jaurlaritzak ezarritako abusuzko

gutxieneko zerbitzuei eta beren borrokaren kriminalizazio kanpainari aurre egin behar izan zieten. Urtebeteko grebaren ostean, euren lan baldintzak duintzen zituen hitzarmen bat lortu zuten.

Badakigu emakumeak izateagatik esplotatzen gaituztela, baina batez ere langileak izateagatik jasaten dugu esplotazio hori, eta horregatik aldarrikatzen dugu feminismo antikapitalista: gure eskubideak defendatzea klaseko auzia delako. Soldata duinak nahi ditugu. Enpresek ezin dute ukatu gu kontratatzea haurdun egoteagatik, ama izateko asmoengatik edo gure azal koloreagatik. Soldata eskala bikoitzarekin amaitzea; haur-eskola pu-

blikoak irekitzea auzo edo lantoki bakoitzean, gure ogibidea eta amatasuna bateragarri egiteko. Etxeko lanen esklabotzarekin amaitu nahi dugu garbitegi, jantoki, tindategi eta bestelako oinarrizko zerbitzuak publikoen bidez.

Martxoaren 8an kaleak hartu genituen eta ozen oihukatu genuen indarkeria matxistarekin eta esplotatzen eta zapaltzen gaituen sistema honekin amaitzeko borrokatuko genuela, eta horretarako borrokarako feminismo bat behar dugu. Horregatik Ezker Iraultzaileko kideok Emakume Aske eta Borrokalariak bultzatzen dugu, emakume gazte eta langileen erakunde feminista eta iraultzailea.

Gipuzkoako erresidentziako langileak

Bizkaiko erresidentzietako langileen borroka eredu jarraituz, 370 eguneko grebaren ondoren bere lan baldintzak duintzen zuen akordio bat lortu zutenak, orain Gipuzkoako erresidentzietako langileak mobilizazio berriak deitu dituzte. Patronalek eta Gipuzkoako Aldundiak soldata izoztea eta lan eskubideak beharantx negoziatzea planteatu dute. Zeintzuk dira EAJren planak? Zerbitzu publikoak azpikontratatu pribatizatzea, horietan lan baldintza prekarioak nagusi izateko (aldi baterako kontratuak, miseriazko soldata, esplotazio ordutegiak), modu horretan enpresa pribatuen irabaziak bermatzeko eta gainera prak-

tikan greba eskubidearekin talka egiten duten gutxieneko zerbitzuak dekretatzea.

Urriaren 26an Gipuzkoako erresidentzietako langileek ekitaldi bat antolatu zuten Donostian aldarrikapen oso konkretuekin: langileek enpresa hitzarmenean dituzten lan baldintza guztiak mantentzea bermatzen duen akordioa eta soldata arrakalarekin bukatzea ahalbidetzen dituzten hobekuntzak. Bizkaiko erresidentzietako langileak ere bertan egon ziren, berriz ere gure eskubideak defendatzeko bidea zein den erakutsiz: elkartasuna eta borroka.

EAEko eskola jantoki publikoetako langileak

Ikasturtea EAEko jantoki publikoetan langile asanbladekin hasi da. Eusko Jaurlaritzak zerbitzu publiko duinak defendatzetik urrun, langileak esplotatuz aberasten diren osalaritza sektoreko enpresa pribatuak azpikontratatu dituzte. Bestalde, langile hauek EAJk aurrera eramaten dituen hezkuntza murrizketak ere pairatzen dituzte, eta lan gehiago egin behar dute soldata berbera irabaziz. Argi dago Eusko Jaurlaritzaren politika zein den. Ez zai-zkio axola langileen baldintzak, aldi baterako kontratuak edota neurri-gabeko ratioak; garrantzitsua zerbitzu publikoak pribatizatzea da, enpresa pribatuek negozioak egin eta irabaziak atera ahal izateko. Dementzako kalitatezko zerbitzu publikoak nahi ditugu!

Etkez etxeko laguntzako langileak

Urriaren 26rako etkez etxeko laguntzako mila eta bostehun langile zeuden grebara deituak, eta beste 12 greba egun iragarri dituzte 2018. urtea amaitu baino lehen. Beste sektore prekarizatueta eta feminizatueta gertatzen den bezala, langileek esplotazio bikoitzari aurre egin behar diote: emakume izateagatik eta langile izateagatik. Menpekota-



suna duten pertsonak egunero ordu batez edo biz laguntzen dituzten langileak dira. Orain Eusko Jaurlaritzak abusuzko gutxieneko zerbitzuak inposatu ditu “menpekotasuna duten pertsonen onuragatik”. Hau da, hain zuzen ere, oinarrizko zerbitzuak pribatizatu eta murrizten dituzten horiek eskuak burura eramaten dituzte greba egunetan, antza, mendeko pertsonen baldintzaz kezkatzen direlako. Baina

etkez etxeko laguntzako langileek oso argi daukate kalitatezko zerbitzu publikoak izateko zerbitzu publiko eta doako bat bermatu behar dela, mendeko pertsonak zaintzeko behar beste langilerekin eta langileentzako lan baldintza duinekin. Horregatik kalean eta borrokan jarraituko dute. Zerbitzu publikoak ez daude salgai eta defendatu egingo ditugu!

Miloi eta erdi ikaslek baino gehiagok greba egin zuten Hego Euskal Herrian eta Estatu mailan azaroaren 14an, ikasgeletatik matxismoa kanporatu eta heziketa sexual inklusibo eta aske baten alde.

Aurrera jarraituko dugu!

Artikulu osoa webgunean
euskalherriasozialista.net / gazteria



Bazen behin emakume bankari feminista bat...

BÁRBARA AREAL

Bazen behin Espainiako erreinuan XXI. mendeko printzesen ipuina. Ipuineko protagonista, Ana Patricia Botín, ez da edonolako emakumea. Aitaren aldetik bankarien hereniloba da eta “Grande de España” partida bikoitzaz, Botinen amarentzat Juan Carlos I. erregeak asmatu zuen tituluari esker, markesen seme batekin ezkon zedin.

Hain etxe onekoei dagokien bezala, beti ibili da luxuz eta erosotasunez inguratuta, hala nola jauregiez eta hegazkin pribatuez. Eliteko ikastetxeetan jaso zuen heziketarik onena Suitzan, Austrian eta Erresuma Batuan eta ekonomian graduatu zen Harvardeko Unibertsitate entzutetsuan.

Urteak aurrera joan ahala, printzesa moderno hau finantzen erregina bilakatu zen, Santander Bankuko zuzendaritzara iritsi ostean. Azken lorpen horri esker, Forbes aldizkariak munduko 10 emakume boteretsuenen artean sailkatu

zuen. Izan ere, bere aitona Emilio Botín II-ak zioen bezala: “Aberatsak, benetan aberas deitzen dituzun horiek, oso gutxi gara”. Ana Patricia-ren eta herri xehearren artean beti existitu izan da amildegi erraldoia: berak 12 hilabetetan edozein langilek 600 urtetan irabaziko lukeena irabazten du.

Pasa den abuztuan baieztatu zuen: “Jakitun naiz hitz egiteko egoera pribilegiatu batean nagoela. Hortaz, hitz egiten dudanean, ez dut soilik niregatik egiten. Egin, egiten dut laguntzen gaituzten gizonen gehiengoagatik, emakume guztiengatik. Horregatik nire feminismoa orain publikoa da. Eta baliatze zureak ere publikoa beharko lukeela izan”.

Santander Bankuaren feminismoa

Ana Patricia erreginak ez du herri osoaren maitasuna lortu, komunikabideen koipekeria etengabeak ohoratzen badu ere. Izan ere, femi-

nista antikapitalistok ez dugu bere ipuina sinesten.

Ez, ezin duzu “emakume guztien” izenean hitz egin, zure erreinua jende mordoaren, milioika emakume langileen, sufrimenduaren eta esplotazioaren gainean eraiki delako. Espainiar Estatuan, non etxe kaleratzeak eta emakumeak sinonimoak baitira, Botínek zuzentzen duen bankuak familia ugari bota ditu beraien etxeetatik. Halaber, gutxiago ordaintzen die emakume langileei gizonezkoei baino eta langileen gaitzeskerak —emakume zein gizonen— ohikoa da, eta krudeltasun berezia dagoe ama direnekin.

Emakume aberats feministen moda berria

Bankari feminista honek MeToo mugimenduarenganako miresmena agertu zuen, “jendeari bakarrik ez dagoela jakinarazteko” balio omen duelako. Horrenbesteko gizatasunak eta enpatia ez datoz bat berak zuzentzen duen enpresa-

konglomeratua armamentu-fabrike-tako inbertitzaileetan lehena izatearekin. Bada, Ana Patricia maitasunez hitz egin diezaguke, baita gure artean zaintzeaz eta bere eliteko feminismoaz ere, baina ez da inozoa, ez horixe: bere negozioak edozein kontsiderazioren gainetik daude.

Horrelakoxeak dira diruaren eta ospeareen erreginak; horra hor, Ana Rosa Quintana, Susanna Griso edo Tita Thyssen. Beraien feminismoa loratzen da beharrezkoa denean... haien negozioa egiteko, alegia. Eta, kasualitatez, Botín bankariak bere feminismoa lau haizetara aldarrikatu eta zenbait astetara, bere bankuak kaleratu du Santander Equality Acciones delako produktu berria, antza genero-berdintasunerako politikak sustatzera bideratuta. Kontua da horren izen iradokitzailearen atzetik inbertsio-funts berri bat baino ez dagoela, kapitalak erakartzen ahalegintzen dena, diru gehiago egiteko.

Gertakariak erakutsi bezala, gehiengoaren bizitza, bai emakume bai gizonena, gutxi axola dio Ana Patriciai. Bere feminismoa ez da marketing teknika berria baino, esne-mamitan bizi den gutxiengo txiki hori edertzeko asmotan dabilena, gehiengoak bizitza duin batengatik borrokatzen dugun bitartean.

Aski da! Koplarik ez!

Bada esfera indibiduala gainditzen duen beste alderdi bat ere, eta kapitalista guztien interesei erantzuten dio, bera barne. Haien finantza-argota erabilita, etsaitasun EEPa (*OPA hostile*) baten aurrean gaude, masen mugimendu feminista asimilatzeko asmotan dagoena, sistemarekin bateragarria izan dadin.

Patriarkatua eta kapitalismoa eskutik doaz beti eta emakume langilearen burujabetzeagatik borrokaren aurkari dira, bai eta LGTBI komunitatearen, gure anai-arreba etorkinen eta zapaldu guztien aurkakoa ere. Orain guregana datoz esanez guztiak batera gaudela, zapalduak eta zapaltzaileak, soldatapekoak eta enpresariak, umilak eta aberatsak, haiek deritzoten feminismo transbertsal delakoan (hori gutxi ez eta, feminismo honen alde eta mugimenduko buru agertu da Albert Rivera bera ere).

Ez dugu ez maitagarrietan ez bankarietan sinesten. Jakin badakigu gure askapena ez dugula luxuzko bulegoetan lortuko, ez bankuetako bulegoetan ez ministerioetakoetan. Aitzitik, horiek eraitsi behar izango ditugu, eta gu geu izango gara gure burujabetzea kolektiboki konkistatuko dugunak, gure klase kontzientzia iraultzaile eta antikapitalistarekin armatuta eta borroka antolatuen bitartez.



CATALUNYA • Urte bete preso politiko eta iheslariekin

Errepublika sozialistaren aldeko borrokak aurrera darrai

ESQUERRA REVOLUCIONÀRIA
Catalunya

Pasa den urriaren 16an urtea bete zen Jordi Sánchez eta Jordi Cuixat espetxeratu zituztenetik, momentu hartan ANCKo eta Òmniumeko presidente zirenak. Hainbat espetxe agindu eta erbesteratze igaro dira harez geroztik, Catalunyako askapen nazionaleko mugimenduen aurkako amorruzko ofentsiba errepresiboaren baitan.

Halere, espetxeak, borrak eta komunikabide espainolista eta atzerakoietan etengabeko kriminalizazio kanpainak erabiliz gu isilarazteko saiakerak guztiz porrot egin du. Urte bete igaro ostean, milaka gara kalean borrokatzen jarraitzen dugunak, presoan askapena eta iheslarien itzulera lortzeko eta errepublika gauzatzeko helburuarekin.

Xantaia politikoa kaleko indarraren aurrean

Errepublikaren aldeko mugimenduak duen indarra argi geratu

da iraileko Diada egunean: Bartzelonan 2 milioi inguru batu ziren. Hori gutxi ez eta, urriaren 1ean, Catalunya osoan plazak eta kaleak bete ziren jendetzarekin. Kontraste ikaragarria dago deialdi horien izaera masiboaren eta I11ko Ciudadanosen, I29ko Jusapolen edota U12ko bloke monarkikoaren manifestazio txikien artean.

Errepresioaren bidez ezin izan dutela errepresioa gelditu ulerturik, burgesia espainiarraren sektore bat, kapital katalan handiarekin batera, irtenbide bat bilatzen saiatzen dabilta. Horretarako, PSOE eta Podemosen gobernu baliatu nahi dute “elkarrizketa” bide bat irekitzeko, Estatut berriaren negoziaketa berriro hartzeko eta, batez ere, herritarrak etxean sartu eta etenik gabe izan diren mobilizazio masiboekin amaitzeko. Lehenik, ordean, PDeCATeko eta ERCko buruzagien berme konkretu bat nahi dute: ez dutela errepublikaren aldeko borroka bultzatuko eta autonomismoaren bidera itzuliko direla. Azken hilabeteetako negoziatuetan aipatu den truke txanpona preso politikoei matxinada delituak arintzea izan da, baina justiziaren izaera frankista berriz ere inposatu du fiskaltzak, akusazio horiei eutsi eta 25 urte bitarteko kartzela zigorrak eskatu baititu. Zigor eredugarria nahi dute.

CDRen mobilizazioek eta urriaren 1ean Universitats per la República, Sindicat d'Estudiants eta SEPCek deituriko ikasle grebako mobilizazioek argi erakusten dute

gazteria borrokaren lehen lerroan dagoela. 150.000 ikasle baino gehiago manifestatu ziren Catalunyako hiriburuan egun horretan. Era berean, ERCko buruen eta Quim Torreraren Gobernaren politika desmobilizatzaileen aurkako kritikaren buruan ere kokatu dira gazteak. Hala ere, mugimenduan geroz eta sektore zabalagoek ateratzen duten ondorioa da honakoa: indarren arteko erlazioa errepublika katalana eraikitzearen erabat aldekoa da, eta behar dena alternatiba politiko bat da, sistemaren logikarekin, bere instituzioekin eta hori sostengatzen duten alderdiekin hautsiko duena.

Borrokatzen duen ezkerak hartu behar du askapen nazionaleko mugimenduen zuzendaritza

Mobilizazio ikaragarrien protagonista izan garen milioika gazte eta langileontzat, baita erdi mailako geruzetako hainbatentzat ere, errepublika ez da abstrakzio bat, beharra baizik; 78ko erregimenarekin eta monarkiarekin, eta ondorioz Kataluniako oligarkiarekin, haustea ezinbestekoa da jasaten dituen

gun arazo sozial larriak konpontzeko eta murrizketekin eta austeritatearekin amaitzeko.

Gehiengo honen aurrean beste korrante bat dago PDeCAT eskuin katalanaren eta ERCko buruzagi sozialdemokraten bidez Gobernaren politika zehazten duena. Aitzakia ezberdinekin, bi formazio horien buruzagiek bertan behera utzi nahi dute errepublikaren aldeko borroka eta autonomismora itzuli nahi dute. Hori erakusten dute “lege barneko elkarrizketaren” inguruan PDeCATek PSOEren gobernuarekin adostu duen mozioak, Joan Tardàk esandakoak, “soilik ergel edo ezjakin batek aldarrikatuko luke gaur errepublika” eta Oriol Junquerasen posizionamendu publikoak, lehen-tasuna emateko negoziatzioari eta udal zein Europako hauteskundeei.

Burgesia espainiarraren eta katalanaren sektore batek esperantza handiak ditu ERCko buruek balazta gisa jokatzeko. CEOEko presidenten Joan Rosellek Junquerasekin izan zuen bisita horren adierazle da. Edonola ere, masen kontzientziak eman duen saltoak eta krisi ekonomikoaren jarraipenak, benetan konplikatzen dituzte klase dominatzaileen asmoak, erro sozial eta politiko sakonak dituen gatazka hori desaktibatzeko.

Herriaren nahiei bizkarra emateko saiakera hauen aurrean, CUPeko eta CDRetako kideek, ANCKo eta Òmniumeko ekintzaileen oinarriak, Sindicat d'Estudiants, SEPC eta Catalunyako errepublikarekin konprometituriko langileen sindikatu eta erakundeok aurrera pauso berri bat eman behar dugu: fronte bakarra osatu behar da eta argi utzi eskuin katalanistaren eta ERCren manobren aurka gaudela eta U3an Catalunya gelditu zuen bezalako greba orokor berri bat prestatu behar dela. Soilik horrela lortuko dugu presoan askatasuna eta iheslariak itzultzea, errepublikaren kausa aurrera eramatearekin batera.



Naval ez itxi!

Ontziolaren nazionalizazioa orain!

Bizkaia mailako greba orokor baten alde enpleguaren defentsan!

IKER OTERMIN

Naval Euskal Herriko ontziolarik handiena da eta Ezkerraldeko industriaren enpresa nagusia. Garai batean 3.000 langile aritu ziren bertan, eta bere instalazioetan munduko itsasontzi handienetarikoz batzuk egin izan dira. Konkurtso-prozesuan urtebete eman ondoren, ixteko zorian dago, eskualdeko hainbeste enprekin gertatu den bezala. 180 langile kalean geratuko dira, eta ontziolari lotutako beste 400 enpresa osagarriren eta 2.000 langilearen etorkizuna kolokan geratzen da.

Naval XIX. mendearen bukaeran sortu zen, eta 100 urte hauetan, 200 itsasontzi baino gehiago eraiki ditu. Euskal industriaren ikurra izanik, bertako langileek Euskal Herriko langile mugimenduaren borroka eredugarrienak erakutsi dituzte, batez ere, Felipe Gonzalezen garaietan abian jarri eta, besteak beste, Euskalduna eraitsi zuen sektorearen birmoldaketaren aurka. PSOEn eta EAJren Gobernuak estrategia bera zuten: industria sektorea sakrifiku, zerbitzu-jarduerak hobesteko. Estrategia horrek Naval harapatu zuen bete-betean, eta CCOO zein UGTko buruzagien konplizitatearekin, enpresak indarra galdu zuen, langile kopurua murriztu zuen eta, azkenik, esku pribatuera pasatu zen 2006an.

Pribatizazioak arbuio zabala aurkitu zuen Euskal Herrian, baita Na-

valeko langileen artean ere. Hala ere, EAJ alde agertu zen, eta CCOO eta UGTren aldetik ez zen inolako oposizioirik egon. Aurrejubilazioen txanda berri bat onartu zuten, eta ontzat jo zuten Naval SEPItik —Estatu mailako Industria Sozietatea— ateratzea, Estatuko beste hiru ontziolen batera. Lau ontziola horietatik Naval izan da gehien iraun duena. Xixon, Sevilla eta Maniseko motoren fabrikak aspaldi itxi zituzten. Horrek erakusten du zein diren pribatizazioaren akatsak eta ondorio lazgarriak.

Egia da Navaleko akziodun pribatuek (Muruetan eta Ingeteam) kudeaketan akats larriak egin dituztela; esate baterako, lau itsasontzi batera kontratatu dituzte baliabideak eta denbora kontuan hartu gabe. Halere, kudeaketa txarra ez da nahikoa Navalen porrota azaltzeko. Euskal Herrian eta, bereziki, Ezkerraldean hamaikagarrenez gauza bera ikusi dugu. Naval itxi baino lehen, Babcock Wilcox, Labe Garaiak eta tamaina handiko enpresak eraitsi dituzte. Estatuko Gobernuaren eta EAJren erabaki politiko bat izan da industria sektoreak uzteko eta haren ordeze eraikuntza eta turismoa bultzatzeko, PP eta EAJren inguruko familia kapitalista handiei mozkin handiagoak eta azkarragoak ematen baitzizkiete. Azken hilabeteotan, Euskal Herriko hainbat industria ixteko zorian egon dira: Ortuellako General Electric, Sestaoko

ACE (lehengo Labe Garaiak), CEL paper-fabrika, edo Leioako Vicrila. Batzuek lortu dute aurrera egitea, kaleratzeak eta langileen sakrifizio latzak tarteko.

Ezker Iraultzailearen ustez, Navalen arazoa ez da salbuespen bat. Kudeaketaren inguruko arazoek (egia esan, atzean ezkututzen dira kapitalisten poltsikoetara doazen milioietako mozkinak), Asiako herrialdeen lehiakortasunak eta PSOEek eta EAJk jarritako aitzakiek erakusten dute industria astuna mantentzeko duten interes falta. Berriz ere Navalek esku publikoetan egon beharko luke eta Navantian integratu beharko litzateke, langileek eta zenbait sindikatuk eskatu bezala. Gobernu espainiarrak bere gain hartu beharko luke Sestaoko lanpostu guztiak mantentzeko ardura. Aldi berean, enpresa osagarrietako 2.000 langileak ere Navantian integratuko beharko lirateke. Pribatizazioaz geroztik, enpresa osagarriek 80ko hamarkadan ontzian egiten zen lan bera egiteko balio izan dute, baina kostu gutxiagorekin, lan baldintzak okertuz eta langileak zatituz haren borroka ahultze aldera.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren jarrera salatzen dugu. Azken hilabeteotan langileen batzordeari xantaia egin dio kalean zein komunikabideetan zarata egin ez zezaten, armadoreak eta akziodunak uxatu lituzketelakoan. Eskuinaren xantaia hau onartu izanak ontziola

lurperatzea ekarri du. EAJren hitz onekin eta haien alkateak mobilizazioetan agertu izanarekin saiatu dira estaltzen euskal enpresarien gogo falta enplegua industrian irautarazteko. Esan dute Europak ez duela onartzen horrelako erreskaterik egitea edo nazionalizatzea eta, eginez gero, neurri horiek ez direla inondik ere eraginkorrak. Aitzaki-maitzakiatan dabilta, beste aldera begiratzen duten bitartean. Ora in arte egiaztatu den bakarra izan da pribatizazioaren erabateko porrota eta, horrekin batera, EAJren administrazioak enpresari handien mozkinak eta interesak bakarrik defendatu izan dituela, langileon kaltean.

Arazoa Navalez harantzago dago. Gaur egun kapitalismoarekin milaka lanpostu arriskuan daude Euskal Herrian, Estatu espainiarrean eta Europa osoan. Horregatik, ekintza sindikal sendoa eskatzen dugu, ez bakarrik Naval defendatzeko, baita krisian diren Ezkerraldeko enpresetako langileen borroka bateratzeko eta greba orokorra zabaltzeko Bizkaiko eta Euskal Herri-



ko industria osoan. Beharrezkoa da Ezkerraldeko langileen koordinadorea bat sortzea, langileok borroka planifikatu, erabaki eta zabal dezagun demokratikoki eta modu asanblearioan. Ikusi berri dugu Productos Tubulares-eko langileen mugagabeko borroka, antolaketan eta langileen ekimenean oinarritutako

ekintza sindikal indartsuak, balio izan duela enpresariei tinko aurre egiteko.

Naval Publikoa!
Ontziola nazionalizatu behar da lanpostu guztien defentsan!
Borroka industria osora zabaldu behar da!

Utzi Altsasu bakean, gazteak askatu!

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

lak atera zituzten eta bozina jotzen hasi ziren balkoietatik, eta musikak ere jotzen jarraitzen zuen. Helburua bete zuten. Erreakzionarioek erabat isolatuta ikusi zuten beren burua, eta ahulduta atera ziren.

Gezurra eta manipulazioa, horri bakarri heldu ahal izan dio aparatu judizialak azken bi urte hauetan eta horixe bakarrik erabil dezake eskuin espainolistak. Albert Riverak ziurtatu zuen norbanako batzuek harriak bo-

ta zizkietela kotxera ekitaldira bidean zirela. Aurrez asmatutako gezurra, Foruzaingoak berak gezurtatu zuena.

Ezker Iraultzaileko kideak Altsasun izan ginen, larunbatean eta igandean, azken bi urte hauetan egin dugun bezala, muntaia polizial honen aurka herrietan, Altsasun eta Iruñean

egin diren ekitaldietan, mobilizazioetan eta manifestazioetan parte hartuz eta horiek babestuz. Argi utziko diegu frankista hauei: borrokan jarraituko dugu gazteen askatasuna lortu eta errepresioarekin eta faxismoaren izurritearekin behin betiko bukatu arte.



Altsasuk eta Euskal Herriak

Ciudadanos, PP eta Vox alderdien probokazio frankistari erantzun diote

Utzi Altsasu bakean, gazteak askatu!

Azaroaren 4an, España Ciudadana plataformak ekitaldi bat antolatu zuen Altsasun. Bistakoa zen probokazioa: diskurtso frankista eta espainolistarekin bularra erakustea, herriko 8 gazteen aurka azken bi urteetan Estatu espainiarreko aparatu polizial eta judizialak eraiki duen

muntaia txalotzea. Ekitaldiaren buru izan ziren Albert Rivera, Ana Beltrán eta Vox Alderdiko Santiago Abascal. 200-300 pertsona inguru besterik ez zituzten bildu. Hori bai, guardia zibil eta foru polizia kopurua ikaragarria izan zen goizetik. Helikoptero eta guzti.

Altsasuko herritarrek eta Euskal Herriko beste lekuetatik bertaratuak emandako erantzuna eredu-garria izan da, beste behin. Larunbatean, azaroak 3, 10.000 laguneko manifestazio batek zeharkatu zituen Altsasuko kaleak "Utzi Altsasu Bakean" lelopean, Altsasuko herri batzarrak deituta.

Ekitaldi egunerako, Altsasuko bizilagunen batzarrak karpa aldarrikatzaile eta festiboa antolatu zuen. Manifestazio antifaxista ere deituta zegoen, eta mila pertsonatik gora bildu zituen. Altsasuko bizilagunak beraien izan ziren, eta ez polizia kopuru izugarria, manifestazioaren buruan jarriz frankisten probokazioan inoreror ez zedin bermatu zutenak. España Ciudadanaren ekitaldia hasi bezain pronto, elizako kanpai hotsak hasi ziren, bizilagun batzuek kazo-

Antolatu zaitez

EZKER IRAULTZAILEAN

Euskal Herria Sozialista baten alde borrokatzeko

15. ORRIAN JARRAITZEN DU

- Kanpora 155a! Preso politiko guztiak askatu. Kanpora Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilaren indarrak Euskal Herritik eta Kataluniatik.
- Lan eta pentsioen kontraerreformen indargabetzea. Jubilazioa 60 urtetara soldataren %100arekin eta errelebo kontratuak gazteentzat.
- 1.100 eurotako gutxiengo soldata eta 35 orduko lanaldia astean, soldata murrizketarik gabe.
- Etxe kaleratzeak debekatzea. Etxebizitza publikoen parkeak alokairu sozialekin, bankuen eskuetan dauden etxebizitzak desjabetuz.
- Pribatizaturiko zerbitzu publikoak bermunizipalizatzea, langileak mantenduz eta ugarituz eta lan eskubideak errespetatuz.
- LOMCE eta 3+2 kanpora. Kalitatezko hezkuntza publikoa, demokratikoa eta doakoa, haurtzarotik unibertsitatera arte.

- Osasungintza publiko duin, doako eta unibertsalerako eskubidea.
- Benetako elkartasun konkretua errefuxiatuekiko: kuperorik eta barneratze esparrurik ez. Atzerriko Legearen indargabetzea eta CIEak ixtea.
- Adierazpen, bilera eta antolakuntza eskubideak osorik bermatzea. Mozal legearen indargabetzea.
- Bankaren eta sektore estrategikoen nazionalizazioa, pertsonak erreskatatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Autodeterminazio eskubidearen alde, Catalunyan, Euskal Herrian eta Galizan. Errepublikak sozialista katalanaren alde, eta errepublikak sozialista federal baten alde, Estatu espainiarra osatzen duten herrien eta nazioen batasun libre eta boluntarioan oinarritua, horrela erabakitzen badute.